

SARRERA

Gure produktuari proCloset deitu diogu. Itxuraz denok ezagutzen dugun armairu ohikoa da, baina teknologia berria erabiliz armairu berritzaile azkar bat sortu dugu.

Armairuaren atearen erdialdean ukipen-pantaila bat dago, 10 hazbeteko luzera duena. Honekin batera, kode irakurle bat dago, erabiltzailearen arropa berrien etiketak irakurtzeko eta erraztasunez sailkatzeko.

Armairu honek arropa eguraldiaren eta urtaroaren arabera antolatzen du. Honen helburua bezeroari arropa-konbinazio ezberdinak eskaintzean datza, modu horretan denbora aurreztu egiten baita.

Ezaugarriak:

- Azkarra (abiadura aldetik, zein teknologia erabileraren aldetik ere).
- Erosoa (denbora aurrezten du eta aholkuak ematen ditu).
- Estetikoki polita (bakoitzaren arabera pertsonalizatu daiteke).